

FASHION REVOLUTION WEEK EUSKADI 2026



bilbaoDendak y Fashion Revolution Euskadik kontsumoa zaintzea sustatzen dute, tokiko hezkuntza eta merkataritzatik abiatuta

ZAINDU / CUIDAR lelopean, edizio honek zaintza, modaren eta horrek gizartean, kulturen eta ingurumenean dituen eraginen inguruko eztabaida garaikidearen erdigunean kokatzen du: arropa zaindu, pertsona gisa zaindu, talentua eta lanbideak zaindu, baztertzearen aurrean erreparatu.

Gehiegizko ekoizpenak eta janzen dugunarekiko deskonexioak markatutako testuinguru honetan, Fashion Revolution Week Euskadik gelditzea, behatzea eta erantzukizuna hartzea proposatzen du, zaintza pertsonetik eta lurraldearekiko iraunkorrakoak eta errespetutsuak diren ereduetarantz aurrera egiteko egiturazko tresna gisa ulertuta.

ETORKIZUNeko KONTSUMITZAILEAK

Horrela, Bilbok bere erakusleihoak kontsumo kontzientearen bozgorailu bihurtuko ditu berriro, **bilbaoDendak** eta Fashion Revolution Euskadik bultzatutako hezkuntza-ibilbidearen bigarren edizioarekin. Ekimenak bigarren hezkuntzako ikasleak tokiko modako komertzioekin eta elikadurarekin lotzen ditu, jasagarritasunari, kontsumo-ohiturei eta hiriari buruz hausnartzeko.

Aste batzuetan, ikasleek eskuz esku lan egiten dute Bilboko dendeekin, eta hurbiletik ezagutzen dituzte haien produktuak, historia eta aukera

bakoitzaren atzean dauden balioak. Eraitza **erakusleihen ibilbide** batean gauzatzen da, eta herritarrak gonbidatzen ditu tokiko merkataritzari beste begi batzuekin begiratzera: kontzienteago, kritikoago eta inguruarekin lotuago.

Ekintza puntual batetik harago, “Etorkizuneko Kontsumitzaileak” hezkuntza esperientzia bat da, belaunaldi berrietan hausnarketa bat ereitea bilatzen duena, ofizioetara, materialetara eta erosten duguna hobeto aukeratzearen garrantzira hurbilduz.

SKFK: c/ Victor s/n

Koopera: c/ Victor 5

Styling: c/ Rodriguez Arias

Falstaff: c/ Colón de Larreategui 24

Estudio 14: c/ Dos de Mayo, 14

Serie B: c/ Loteria 2,

Foxter Shoes: c/ Diputación 2

Ultramarinos Gregorio Martín: c/ Artecalle, 22

Charcutería Thate: c/ Colón de Larreategui 25

Delicatessen López Oleaga y Romaña: c/ Astarloa 3

ARGAZKI ERAKUSKETA

Fashion Revolution Week Euskadiren baitan, Erriberako Merkatuak Etorkizuneko Kontsumitzaileak argazki erakusketa hartzen du, Frantziako Lizeoko, Bizkaia Eskolako, Miguel de Unamuno BHIko eta IES Rekaldeberri BHIko bigarren hezkuntzako ikasleek egindako lana biltzen duen erakusketa.

Erakusketak Bilbao Dendak merkatarien elkarteko moda eta gastronomiako tokiko saltokiekin elkarlanean ikasleek egindako erakusleihen ikerketa, diseinu eta ekoizpen prozesuaren eraitza aurkezten du, kontsumoa ikuspegi kontziente eta arduratsuago batetik pentsatzeko modu berriak proposatuz.

Instalazio horren bidez, belaunaldi berriek kontsumoaz, jasangarritasunaz eta sormenak gure ohiturak eraldatzeko duen paperaz nola hausnartzen duten ikusi ahal izango du publikoak.

Datak: 2026ko apirilaren 13tik 26ra /// Ordutegia: 8:00 - 20:00 /// Lekua: Erriberako Merkatua, Bilbo